



Ikaztegietatik barrena sartuko da Korrika 15 Tolosaldera, gaur zortzi

IBILBIDEA ▶ Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Ibarra, Zizurkil, Villabona, Irura, Anoeta eta Aduna igaroko ditu

OMENALDIA ▶ Euskal emakumea omenduko du aurten Korrikak; ekitaldi ugari izango dira gurean ▶ 2-3

LIZARTZA ▶

Garikoitz Etxeberria Espainiaren esku utzi du Frantziak

«Salaketa ofiziala» erabili du lehen aldiz Frantziako polizia ▶ 6



Languurreko parkean zuhaitz berriak Zuhaitz Egunaren harira

ALEGIA ▶ Atzo goizetik, Alegiko Languurre parkeak baditu zuhaitz gehiago, Zuhaitz Egunean San Juan eskolako haurtxoek Intxaurreondoak, haritzak eta urkiak landatu baitzituzten bertan —argazkian, landaketaren une bat—. NEREA URBIZU ▶ 5

AMASA-VILLABONA ▶

Euskal Herriko historia arakatzen duen ikastaroarekin «pozik»

Antolatzaileak gustura azaldu dira parte-hartze eta garapenarekin ▶ 4



Bihar Larunbata Villabonako Gurea Aretoan 22:00tan **Gu Ta Gutarrak** eta **Karidadeko Benta** taldeen kontzertua izango da! HITZAK bere harpidedunen artean 3 sarrera zozketatu ditu eta hauek dira irabazleak:

- ▶ Izaskun Zarategi Agirrezabala (Villabona)
- ▶ Garbiñe Mujika Lopetegi (Villabona)
- ▶ Jose Zubeldia Irazusta (Tolosa)



EUSKARA ▶

Gaur zortzi, Ikaztegietatik barrena sartuko da eskualdera 15. Korrika

08:30ak aldera iritsiko da Tolosaldeara, eta bederatzi herritatik igaroko da; jaialdiarekin lotuta hainbat ekitaldi egingo dituzte datozen egunetan eskualdean

ESTI EZEIZA

Heldu da aurten Korrikak zabalduko duen mezua. Heldu herriari, euskarari, lekukoari, elkarlanari eta hitzari diote aurtengo edizioari antolatzaileek. «Euskaldunok euskaraz mintzatuz adierazten baitugu geure euskaldun izaera, euskaraz hitz eginez egiten dugu Euskal Herria». Gainera, «Euskarak Euskal Herri osoko hizkuntza izan behar du. Horretarako, konpromisoak behar ditugu». Korrika 15ek, euskara ikasi eta erabiltzea eskatzen die euskal herritarrei, eremu berriak zabaldu eta elkarlanean aritzea.

Herenegun aurkeztu zuten ekitaldia Tolosaldeko Korrika



Jaione Rodrigex, Lourdes Gorostegi eta Aintzane Goenaga, herenegun, Korrikaren aurkezpenan. E. EZEIZA

batzordeko ordezkariak eta AEK-ko irakasleak. Hilaren 22an abiatuko da aurten Korrika, Karrantzatik hain zuzen ere, eta Iruñean amaituko da apirilaren 1ean. Tolosaldeara martxoaren 24an ailegatuko da, eta Ikaztegietatik sartuko da 08:30ak aldera.

Korrika 15ek euskal emakumea omentuko du, euskal emakumeak gure hizkuntzaren transmisioan izan duen garrantzia eta ezinbesteko papera goraiatu nahi dituelako. Beraz, «urtetako menderakuntza, jazaritze eta zigorrei aurre egiteko eta euskal kultura eta euskara, belaunaldiz belaunaldi, gorde eta transmititzeko, euskal emakumeek izan duten indarra, adorea eta balioa» omentu nahi ditu korrika 15ek.

Jaialdi honetarako motorrak berotzeko, eta herria girotzen hasteko hainbat ekitaldi antolatuta dituzte Tolosaldeko herritan. Honez gain, Korrika herritarrei gerturatzeko beste modu bat, honekin lotutako materiala saltzea da. Hau Andoingo Li dendan eskuragarri da. Bestetik asteburu honetan, Villabona, Alegia eta Amezketa postu berezi batzuk jarriko dituzte arropa eta osagaiak saltzeko.

FELI ETXEBERRIA ▶ UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

«Emakumea eta euskara esfera publikora noiz igaro ikusi behar da»

Nerea Urbizu ▶ Feli Etxeberria Donostiako unibertsitateko irakaslea da (Amezketara, Jauregi Txikikoa, 1944), filosofia eta hezkuntza zientzien fakultatean. 40 urte inguru daramatza lanean, ikastoletan hasita, irakasle eta psikologia eta pedagogia ikasketak eginak. Amezketa hitzaldi bat emango du hilaren 23an, Korrika Kulturaren baitan: *Emakumea eta euskararen transmisioa*, hain zuzen.

Emakumea eta euskararen transmisioa. Nola lotu?

Emakumea egoera askotan baztertua izan da. Nolabait ere, euskararekin ere bizipen hau eman da: elkarkidetasun edo antzekotasun horien artean lotu ditut. Bi figurak etxeko txokoan izan dira, esfera pribatu bizi izan direlako. Esfera publikora noiz pasa ikusi behar da, bai euskara, eta bai emakumea bera ere.

Emakumea eta amaren papera, garrantzitsua ere?

Noski, argi dago. Amatasuna biologikoki bakarrik balitz ere,

lotura estua du haurrekin emakumeak. Komunikazio asko daude bien artean: afektua, muxukatze modua, begiratzeko modua... eta hizkera eranstean dio amak. Ez da entzutea bakarrik. Hala ere, ama ez denak ere eragina du komunikazioan. Arrisku bat dago hemen: ezin da dena amaren esku utzi. bere funtzio horri begira bakarrik: neskek etorkizuna bideratu behar dute, hori barneratu behar da. Hori da nagusia. Nire ustez, emakumeak pertsona bezala dituen gaitasunak edo egitekoak gehiago direla, eta handiak. Naturalizat jo da emakumearen papera orain arte.

Ama-hizkuntza honekin dago lotuta ere.

Bai. Ama-hizkuntza lehen hizkuntza bezala ulertzen dut nik. Ama zaintzailea da, eta hizketa hori haurrak ikasiko du. Haur batek txikitan berezko gaitasunak ditu hizkuntzarako. Etxeko hizkuntza ikasten da, ama-hizkuntza.

Eta elebitasunaz?

Elebitasuna aberatsa da. Baina faktore asko hartu behar dira kontuan: aberastasuna da, baina hizkuntza batek besteak kendu egiten dio, arazo sozialak daude ere... Subkoneszienteki aberatsa da elebitasuna, baina kontuan izan behar dira gauza asko.

Haurrekin harremana nola?

Haurrak badaki zeinekin nola hitz egin. Euskara ez da bakarrik transmititzen duguna. Honez bidez, baloreak, usteak, keinuak, goxotasuna... gauza asko daude. Emakume arduratu da transmisioaz, ama izan da, edo bestela zaintzailea. Afektibitatearekin loturikoak emakumearekin asoziatzen ditugu, hori kulturala da: emakumea goxoa da, baina gizar-teak eman dizkion rolak dira ere. Eta aldi berean, gizonak, afektua ikasi behar dutenak dira.

Zer da garrantzitsua?

Heldua haurrekin dagoenaren harreman hori nola gertatzen den ikusi behar da. Ez da



HITZA

hizkuntza bakarrik: hizkuntzaren bidez nortasuna ematen zaio pertsona horri. Zer eginez sortzen da hitz egitearen premia. Gakoa ikastearena da. Herriak transmititzen du. Emakumeak ez ziren konsziente egiten zutenaz: euskara, zaintzeko beharrekin egon da lotuta, emakumea bezala.

Amezketa zara: asko aldatu al da euskara han?

Han euskaraz beti mintzatu da. Baserri giroko herria da eta euskarak beti presentzia handia izan du. Baina, gazteleka ikastearen premia ikusi dut, eragina ere izan duelako. Eus-

kara aldatu? Nire ustez, ondo mantendu da: alfabetatu gehiago daude, baina belaunaldiz belaunaldi aldatuz joango zen: ahozko kontaketa horiek, naturaltasunari eta kulturari loturikoak galdu dira. Batareko duen harremanak ahozkoa aldatu du, eta idaztekoak ahozkoarekin nahastu dira.

Zure amaren, zu eta seme-alabaren artean aldea dago.

Bai. Amezketa joaten naizenean hika hasten naiz, ustekabea; horrek zerbaite esan nahi du. Baina uste dut euskalki gehiago ikasi behar direla, eta bereizten jakin. Berauen euskalkia idazten ez dakitenik ere bada: hori ere gure egitekoa dela uste dut.

Euskararen batua: batu ala aldatu?

Garrantzitsua da euskara batua. Eskolaren bidez ikasi da, baina idazten dugunari antza handiagoa dio orain ahozkoak: diskurtso mota ere aldatu egin da. 60 urteko jendeak ez du harremanik eskolarekin, beti ahozko euskara erabili du: euskara hutsean aritzen dira, molde tipo bat hobe eusten dute. Gure belaunaldiko euskara idealizatu egiten dugu, baina gabeziak ere dauka; ez gaude alfabetatuta, besteak beste. ◀

TOLOSA ▶ KULTURA

KORRIKA 15 ▶ ZENBAIT EKITALDI

VILLABONA

Gaur. 11:00etan, haurrentzako margoketa tailerra Txistulari plazan. Bestetik, Gurea zineman Gu Ta Gutarrak eta Karidadeko Benta izango dira 22:00etan. Sarrerak 15 euro.

AMEZKETA

Bihar. Hamaiketako eskainiko dute eta korrikako aurtengo bideoa aurkeztuko dute, eta Korrika 14ko Korrika Txikiko bideoa proiektatuko dute.

TOLOSA

Martxoak 23, ostirala.

Bonbereneak antolatuta, Chocodelia Internacional katalandarren kontzertua 22:30etik aurrera.

Martxoak 24, larunbata.

Bonbereneak txaranga kalean ibiliko da 09:00etatik aurrera. Bestetik, korrika pasa ondoren hamaiketako.

ZIZURKIL

Martxoak 21, asteazkena.

19:00etan, Korrika 15en aurkezpena: bideo emanaldia eta Hitzaldia Atxulondo kultur etxean.

Martxoak 23, ostirala.

15:30ean, Adunako kruzean hasita, Villabonakoei lekukoa pasako die Zubimusu zubian.

Martxoak 24, larunbata.

12:00etan, hamaiketako Joxe

Arregi plazan. 12:15ean, Emakumeari omenaldia. 14:00etan, Bertso bazkaria Urkamendin: Ainhoa Agirreazaldegia eta Andoni Otamendirekin.

IKAZTEGIETA

Martxoak 24, larunbata.

Korrika pasa ondoren txokolatada. Ondoren, bertso-bazkaria.

ALEGIA

Martxoak 24, larunbata.

Korrika pasa ondoren hamaiketako.

IBARRA

Martxoak 23, ostirala.

Korrika Txikia ostiralean, plazan.

ANOETA

Martxoak 24, larunbata.

09:45ean herriko plazan gelditu dira korrika egiteko. Sarasola sagardotegian bazkaria eta poteoa. Ondoren, Unsain anaiak Gaztebean.

IRURA

Martxoak 24, larunbata.

Korrika pasa ondoren hamaiketako.

IDUNA

Martxoak 24, larunbata.

Korrika ondoren, bazkaria izango da.



Joan den urteko Dantzari Txiki egunean jende ugari bildu zen Plaza Berrian ekitaldi nagusia ikusteko. HITZA

Indartsu dator aurten Dantzari Txiki eguna

Martxoaren 31n ospatuko den jaialdia oraingoan berrikuntzekin dator

ERREDAKZIOA

Udaberri dantzari taldeak antolatutako Dantzari Txiki eguna martxoaren 31n izango da aurten. Gainera, dantza taldearen 50. urteurrena dela eta, indar berezia eman nahi diote ekitaldiari. Hori dela eta, iazkoarekin alderatuta, aldaketa ugari iragarri dituzte.

Joan den urtean, hurrek goizean dantzatu zuten bakarrik eta arratsaldean jaialdi berezia izan zuten. Aurten ordea, arratsaldean izango da emanaldia. Honez gain haur kopurua handitu egingo da, zazpi dantza taldek hartuko baitute parte. Hauetako batzuk Arabatik etorriko dira: Gasteiztik, Eguzkilore eta Adurtza dantza taldeak. Nafarroatik Leitzako Aurrera eta Iruñako San Fermín ikastolako dantza taldeak izango dira. Bizkaiatik Portugaleteko Berriztasuna eta Galdakaoko Andra Mari dantza taldeak eta azkenik Gipuzkoatik, bertako taldea, Udaberri dantza taldea. Denera 300 haur baino gehiago espero dira Tolosako kaleak animatzen egun guztian zehar.

Udaberri dantza taldeak eskaintzen dituen euskal dantza ikastaroak duten indarraren isla da dantzari txikia. Aurten goan 100 haur baino gehiago ari dira dantza ikasten eta on-

EGITARAUA ▶

MARTXOAK 31, LARUNBATA

11:30. Kalejirak abiatuko dira bi taldetan, Tolosako kaleetan zehar. Abiapuntua Plaza Zaharra izango delarik. Talde bat Alde Zaharrean geratuko da eta bestea, beriz, Triangulo plazatik aurrera abiatuko da.
13:00. Kalejira Plaza Berrian amaituko da.
17:00. Emanaldi nagusia izango da Plaza Berrian, bertan, talde bakoitzak bere herriko dantzak eskainiko ditu.
18:30. Emanaldiaren eta Dantzari Txikiaren amaiera.

dorior, antolatzailen esanetan, «beraiek merezi duten ta-mainako dantzari txiki eguna antolatzen saiatu gara, beraiek

baitira dantza taldearen etorkizuna». Bestalde, Udaberrikoek beraien esker ona azaldu nahi diete ikastaroetako haurren guraso guztiei, «beraiek gabe ezin izango baikenuen egun hau modu egokian ospatu, kanpoko haurrak beraien etxetara bazkaltzera eramanez laguntza garrantzitsua ematen baititgute».

Udaberri dantza taldea aurten bere 50. urteurrena ospatzen ari da. Ospakizun ekitaldien artean martxoaren 31 da egun garrantzitsuenetakoa bat, bertan Dantzari Txikiak gain erromeria ere ospatuko baita. 19:30etik aurrera triki-poteoa izango da eta ondoren afaria. Gauean Patxi Perezekin dantza jaialdia izango da Abastos plazan. Afarirako txartelak Kimetz, Garikano eta Zunbeltz dendetan daude salgai, 20 euroren truke.

KORRIKA 15, TOLOSALDEKO IBILBIDEA ▶

Herria	Ordua
Ikaztegieta	08:42
Alegia	09:02
Tolosa	09:28
Ibarra	09:45
Tolosa	10:30
Anoeta	10:26
Irura	10:33
Villabona	10:46
Zizurkil	11:05
Aduna	11:15



Duela bi urte, Alegian Korrika Txikia egin zuten. I. TERRADILLOS

Beti alai

jatezua

Garaian garaiko janariak

Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

AMASA-VILLABONA ▶ KULTURA

Euskal historia arakutzen

'Euskaldunon sustraiak eta memoria' ikastaroaren orain arteko balantze «pozgarria» egiten dute antolatzaileek; azken bost hitzaldiak gelditzen dira

IMANOL GARCIA

Aritz Kultur Taldeak antolatu duen *Euskaldunon sustraiak eta memoria* ikastaroa bere azken txanpara iristen ari da. Dagoeneko 20 saio inguru egin dituzte, astean behin, eta azken bostak gelditzen dira. Orain arteko balorazioa egiterakoan, Enrike Lahidalgia Aritzako ki-deak «pozgarria» hitza erabiltzen du: «Horrelako ikastaro bat martxan jartzekoan inplikazioa eta seriotasuna eskatzen genuen. Horregatik jarri genuen matrikula bat. Eta jendeak erantzun egin du. Astero 60 lagunetik gora izan dira ikastaroan eta poztekoa da».

Nabarralde elkarteak ikastaroa antolatzen lagundu dio Aritzari. Angel Rekalde tolosarra da Nabarraldeko koordinatzailea. «Ikastaroko parte-hartzaileek erakutsi duten seriotasuna eta interesa nabarmen tzekeoa da», dio Rekaldek eta gaineratu: «Jendeak maila dauka, parte hartzen du galderak eginez eta kritikoa da ere entzuten duenarekin. Horregatik, etorri diren hizlariak ere pozik daude ikastarora datorren publikoarekin».

Hitzaldiren batera joan ez denak, aukera du interneten laborpena lortzeko. Ikastaroan izena eman duenak zein interesa duen edozeinek jo dezake www.euskaldunak.info/ikastaroa helbidera eta han izango du informazioa eskuratzeko aukera, hitzaldiko laborpena eta bibliografia, esaterako.

«Euskal Herria helburu»

Euskal Herriaren historia «beti faltsutua» izan dela dio Rekaldek. «Askotan sinistu egiten ditugu faltsukeria horiek. Besteek sortu egiten dituzte eta guk sinistu». Nabarralderen



Gurea aretoan egindako ikastaroaren hitzaldietako bat. HITZA

FALTA DIREN HITZALDIAK ▶

Bost hitzaldi gelditzen dira ikastaroa amaitzeko. Gurea aretoan ematen dira, astelehenetan, 19:00etan.

ETZI
Foruak, bi Karlitaden mendeen.
Lartaun Egibar (euskaraz).

HILAK 26
Euskal paisaia, lurra eta baserriaren historia.
Jakoba Errekondo (euskaraz).

lana, dio, historia ikertzea da: «Datuak bildu, argudiatu egiten dugu. Euskaldunok ez dugu gure historia idatzi eta

APIRILAK 16
Industrializazioa: XIX. mendearen amaiera, alderdi politikoak, sindikatuak, immigrazioa... Jose Maria Lorenzo Espinosa (gaztelerez).

APIRILAK 23
Karlitadak.
Mikel Sorauren (euskaraz).

APIRILAK 30
Diktadura.
Iñaki Egaña (euskaraz).

hori landu behar dugu». Asmoa ez da, ordea, atzera begira gelditzea. «Batez ere gaurko gizartea sendotu nahi dugu. Eus-

kal Herria da helburua, gaur egungoa eta etorkizuneko».

Ikastaroaren aurkezpen liburuxkan zehazten denez, Euskal Herriak izen asko izan ditu: «Vasconia, Iruñeko Erresuma, Nafarroako Erreinua, Euzkadi, Nafarroa... Zenbat izen, zenbat zenbaki, zenbat malko, zenbat izerdi... herri bakarrarentzat». Rekaldek zehazten duenez, «gure herria existitzen duela baieztatzen dugu. Historian zehar, politika, gizartea... modu askotara agertzen da». Ezkutatu nahi den errealitate bat dagoela dio Nabarraldeko koordinatzaileak. «Baina hainbat kasutan errealitate hori azaleratzen da, esaterako erreferendumentan, NATOari buruzkoan adibidez».

GIZARTEA ▶

Arantzazuko martxara joateko autobusak

Donostiako Elizbarrutiak Arantzazura egiten den mar-txa antolatu du aurten ere. Aurtengo leloa *Igo gainera eta zabaldu begirada* da. Erramu Igandearen bezperan izango da, hilaren 31n. Autobusak antolatu dituzte eta herri bakoitzetik aterako dira Oñatira 09:00ak aldera iristeko. Izen-ematea bakoitzak bere parrokiaren egin behar du, 12 euro ordainuz.

ANOETA ▶

Garmendia parroko ohiaren aldeko mezak

Anoetako Parrokiak bi meza egingo ditu Juan Jose Garmendia herriko parroko ohiaren omenez. Gaur, 19:00etan, eta bihar, 12:30ean izango dira elizkizunak, Anoetako parrokiaren.

VILLABONA ▶

Kamioi batek harrapatutako zikloturista hil da

Kamioi batek asteazkenean GI-2631 errepelean harrapatu zuen F.A.A. zikloturista hil egin da. Biktimak 65 urte zituen eta, dirudienez, mugikorren dei bati erantzuteko geldituta zegoela harrapatu zuen kamioiak.

VILLABONA ▶

Bihar 'Harri magikoaren bila' filma Gurean

Haurrentzako euskarazko filma eskainiko dute bihar Gurea aretoan. *Harri magikoaren bila* filma 17:00etan ikusi ahaliko da hiru euroren truke.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Kontsumoaren Eguna izan berri da. Erosketak egiteko garaian kontuan izaten al duzu bilgarria kutsakorra, soberakoa edo erabilgarria den?
▶ Bai.
▶ Ez.
▶ Batazuetan.

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa), Pisua San Frantzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa), Garajeak, Araba etorbidean irekia eta lgarondo eta lurren itxia.
Salgai (Tolosa), Pisua Bizkaia kalean, guztiz eraberritua (Sputnik dorrean).
Salgai (Tolosa), Pisua "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa), Lokalak Agintari kalean eta Kale Nagusian.
Salgai, Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarran.
Salgai (Tolosa), Garajeak, Leidor azpian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

iragarki laburrak ▶

LANA
Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Deitu 943 691 933 zenbakira.
Sukaldaria. Asteburuetarako sukaldaria behar da. Deitu telefono honetara: 615 789 006.
Ileapaindegia. Ibarro L. M. ileapaindegia langile bat behar du. 943 670 343.
Zaintzailea. Arratsaldetan adineko

personak zaintzeko esperientziadun emakume euskalduna eskaintzen da. Interesatu deitu 670 066 096 zenbakira.
Zaintzailea. Emakumea behar da haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko goizez. 943 698 273 eta 679 820 084.

SALGAI
Autoa. Opel Corsa. SS - AW 1.4,

5 ate. 94.000 km. Egoera onean. 1.300 euro. 639 344 809.
Loredenda. Jubilaziogatik, loredenda eskualdatzen dut material eta guzti Lasarten. Kokapen ezinhobea. Baldintza interesgarriak. 626 105 689
GALDUTAKOAK
Patinetea. Patinetea aurkitu da lurren. Deitu: 943 117 542.

ALEGIA ▶ NATURA



Zuhaitz berriak Languarren

Nerea Urbizu ▶ Atzo Languarre parkean Alegiko San Juan ikastetxeok Zuhaitz Eguna ospatu zuten. Intxaurren, haritzak eta urkiak landatu zituzten, eta iaiz landatutakoak ikusi zituzten. Eskuan aitzurra hartu eta zuloa egiten lagundu zuten. N. URBIZU

TOLOSA ▶ KULTURA



Frantziarrek egindako erasoaz

Esti Ezeiza ▶ Jose Antonio Rekondok *Tolosa y la provincia durante la ocupacion francesa*, bere historiari buruzko lehen liburua aurkeztu zuen herenegun gauean udaletxean. Mediku ospetsuak Tolosan frantzesen eraso nola bizi izan zuen kontatzen du. ASIER IMAZ

ERREMONTA ▶

Baines Txapelketan Altuna anaiak irabazle

Altuna I.ak pilotaleku motzekoa jokatu du bihar; gaur, Zeberio I.a. Galarretan

NEREA URBIZU

Hernanin eskualdeko hainbat erremontistek jokatu zuten larunbatean. Master Pacharan Baines txapelketa hasi berria Zeberio II.ak Agirrezabalarekin jokatu zuen Altuna II.-San Miguelen aurka, eta urdinek irabazi zuten, 36-40.

Ondoren, Ezkurra-Urkok Altuna I.-Lizasoarekin jokatu zuten eta berriro ere garaipena amezketarraren bikotearentzat izan zen, anaiaren emaitza bera lortuz.

Bihar torneo horrekin jarraituko dute, eta Ezkurra-Martinez I.a Altuna I.-Etxaberekin jokatu dute Tafallako Ereta pilotalekuan, 18:00etatik aurrera.

Pilotaleku motzetan jokatu beharrekoak hasi dira, hortaz. Zortzi bikote dabilta, eta handienak daude tartean.

Gaurko partidak

Bestalde, Galarreta pilotalekuan gaur erremonteko partida arruntak ere izango dira. Kasu honetan, 16:00etatik aurrera Ezkurra-Etxabe eta Zeberio II.-Urrutia ariko dira. Hirugarren partidaren berriz, Altuna II.-Ion eta Juaristi-Etxeberria ikusteko aukera izango da.

BALIARRAIN-ORENDAIN ▶ AGENDA 21

Hutsuneak bete dituzte lehen zirriborroaren aurkezpenean

Herriarekin loturiko intereseko 70 gai jorratu dituzte bi herrietan

ERREDAKZIOA

Baliarrainen eta Orendainen Agenda 21 prozesuko lehen zirriborroaren aurkezpena egin zuten. Osatuta zegoen ekintza planaren lehenengo zirriborroa aurkeztu eta herritarrek antzemandako hutsuneei konponbideak bilatzen saiatu dira bilera hauetan.

30 lagun bildu ziren Abaltzisketan, Agenda 21 prozesua dela-eta ekintza plana aurkezteko eta herritar guztien artean lehenetsutakoak erabiltzeko. Hauek lau taldeetan bildu ziren eta talde bakoitzeko ekintza konkretuak landu zituzten.

Baliarraindarrek honako gaiak jorratu ahal izan zituzten: etxebizitza, oinarriko zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak, hizkuntza gaiak, aisialdi, kirol eta kultur zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, errepideen ingurukoak, irisgarritasuna, udalerriko ekonomia, ura, energia eta hondakinak, baserria, jardura ekonomikoen eragina, natur



Orendainen, diagnostikoa aurkeztu zutenekoak. HITZA

baliabide eta ondareak, hiri-gintza plangintza, udal kudeaketa, Udala eta herritarren arteko komunikazioa.

Guztira 70 ekintza landu zituzten, Orendainen bezala.

Orendaingo bilera

Orendaingo Udalak deituta, martxoaren 10ean Agenda 21 prozesuko ekintza planari buruzko bigarren herri batzarra egin zen ere. Bertan, herritar guztien artean lehenetsutako

guztiak aukeratzeko bildu ziren.

Agenda 21 prozesuaren nondik norakoak, komunikazio eta parte-hartzea zer den eta nola eman daitekeen azaldu ondoren herri batzarrera etorritako herritarrek talde batean landu zituzten ekintza guztiak. Ekintzen egokitasuna eta lehenetsutakoak izendatu zituzten. Landutako gaiak, berriaz, Baliarrainen landutako berdina izan ziren. «Herri batzarrean egindako lan honekin,

herrirako etorkizunerako plangintza definitu nahi izan da. Horregatik herritarren parte-hartzea garrantzitsua da», aipatu zuten Bozue taldeko teknikaria den Amaia Aramendik.

PILOTA PARTIDUAK
aspepelota.com
Martxoak 19 • Astelehena
16:30

Eugi - Zubieta
Galarza V - Nalda III

MTZ. DE IRUJO - BARRIOLA
GONZALEZ - GOÑI III

Baleztena - Apeztegia
Alzugarai - Auxkin

Tolosako Beotibar pilotalekuan

LEABURU - TXARAMA ▶ AZPIEGITURAK

Bidegorria, Makalak, zebra bideak eta autobus geltokia

Joxe Kruz Goñi alkatea Diputazioarekin elkartu zen azpiegituretz hitzegiteko

ASIER IMAZ

Joxe Kruz Goñi, Leaburu-Txaramako alkatea asteazkenean eguerdian elkartu zen Donostian, Jon Luqui, Gipuzkoako Diputazio Kudeaketa eta Plangitzarako Zuzendariarekin. Mahai gainean, Leaburu-Txaramako azpiegituretz eta Amartzit Txaramara doan errepideak izan zituzten hizketagai. Azken gaiaren barnean, bi puntu aztertu zituzten; oinezkoen ziurtasuna eta errepide alboan dauden Makala zuhaitzen egoera.

Lehenik, bileraren inguruan Jose Kruz Goñik, Jon Luquiren «jarrera ona eta garbia» azpimarratu zuen, «kritikak positiboki hartu zituen eta berria omen zenez, azken urteetan gai

honen inguruan gertatutako eztabaidetaz, informazio handirik ez zuela» onartu zion Goñiri.

Bidegorria Txaramaraino

Leaburu - Txaramako alkatearen esanetan, «bidegorria egiteko aurrekontua onartua eta proiektua bera, bukatuta dute». Goñik erakutsitako proiektuaren arabera, Usabalgoin industriagarako sarreratik, Leaburu - Txaramako mugaraino iritsiko da bidegorria. Lizartzako norabidean, eskuin aldean geratuko litzateke, mendiarren magalean hain zuzen ere. «Larunbatean etorriko da Jon Luqui», eztabaida gai izan zuten errepide zatira eta bertan bidegorria joango den za-



Bidegorria mendiarren ondotik egingo dute Txaramaraino. A. IMAZ

tia ikusteaz gain, Txaramako Kultur Etxerako zebra bideak eta autobus geltokiaren kokapen berriaz hitzegingo dute.

Bigarren puntua: Makalak

Leaburu - Txaramako alkatea eta Kudeaketa eta Plangintza Zuzendariaren arteko bileraren bigarren puntua, errepi-

de berean dauden Makala zuhaitzena izan zen, Goñiren esanetan. Honek «lehen bait lehen aktuatzeko» eskatu zion «desgraziarik gerta ez dadin». Gogoratu, orain dela bi aste, haize boladen ondorioz, «3.000 kiloko» Makala errepide erdira erori zela Amartzitik Leaburu - Txaramara bitarteko bidean.

TOLOSA ▶

Karlos Linazasorok lehen saria irabazi du

A. IMAZ

Erein Euskadiko Kutxa eta Donostia, Opera Prima saria Karlos Linazasororen *Dienez* eleberriarentzat izan da.

Idazle tolosarrak 24.000 euroko diru saria eta Alvaro Martxinbarrena artistaren obra jaso zituen. Aurtengo diru kopurua, 2005ean sariarik eman ez zuten, bikoitza izan da.

Bestalde, bi saridunen nobelak, Erein argitaletxeak argitaratuko ditu eta apirilaren 23an ospatuko den Liburuaren Nazioarteko Egunean egongo dira kalean.

TOLOSA ▶

Triatloilari denboraldia ofizialki martxan

A. IMAZ

Tolosako Triatloi Taldeak (TTT) asteburu honetan emango dio ofizialki hasiera 2007ko Duatloi-Triatloi denboraldiari. Taldeko partaide gehinek Gipuzkoan ekingo diote urteari, Oñatiko XVIII. duatloi proban. Negu aldean fitxaketa berriak egin ostean, «ilusioz gainezka» dira taldeko kideak. Tartean, *Iron Man* (burdinezko gizona esan nahi duena) proba gogorra burutuko duenik ere bada.

Aurten bederatzi kirolariz osatutako taldeak ekingo dio udara amaiera arte luzatuko den denboraldiari eta iazkoa hobetzea edo gutxienez berdintzea izango dute xede nagusi.

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Garikoitz Etxeberria Espainiaren esku utzi du Frantziak, «salaketa ofiziala» lehen aldiz aplikatuta

Euroaginduaren aurkako helegitea atzera bota eta Juan del Olmo epailearen esku geratu dira

A. IMAZ

Garikoitz Etxeberria lizartzarra, Asier Larrinagarekin batera, atzo eguerdian Espainiako poliziaren esku utzi zuten Irungo (Gipuzkoa) mugan. Frantziako poliziaren esku zegoela mugan bertan, dei bat egiteko aukera eman zioten eta senideei deitu zien bere egoeraren berri emateko. Ondoren Efe eta Europa Press agentziek zabaldu-tako berrien arabera, Etxebe-

rria eta Larrinaga Audientzia Nazionaleko Juan del Olmo epailearen aurrera eraman zituzten. Honek, euren kontrako akusazioaren berri eman ondoren, espetxeratzeko agindua eman zuen, beti ere bi agentzia espainiarren arabera.

Sendia, «berririk gabe»

Sendia eta lagunek Garikoitz Etxeberria beraren deiari esker jakin zuten Irunera eraman

zutela Frantziako Poliziak, Espainiakoaren esku uzteko. Arratsalde amaieran Audientzia Nazionaletik pasako zela esan zien Etxeberriak. Horregatik «kezkatu» aurkitzen ziren sendikoak, «tarte horretan galdeketa egin diezaiokete eta torturatzeko arriskua ere egon daiteke».

Preso politiko lizartzarra eta Asier Larrinaga bilbotarraren abokatuak, Paueko Auzitegiak euroagindua onartzean, he-

gitea jarri zuen. Espainara eramatearekin, Frantziako Auzitegi Gorenak erakusten du Paueko auzitegiari arrazoia eman diola. Lehendabiziko aldia da Frantziak, ustezko bi etakide Espainiaren esku uzteko «salaketa ofizialaren» formula baliatzen duela; hau da, ustez Frantziaren egin dituzten delituengatik epaitzeari uko egin eta Espainiaren esku utzi du atxilotutako lekuan eginiko delituen epaiketa.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

2009rako amaituta egongo diren 30 etxebizitza egiteko hitzarmena sinatu dute

Maria Angeles Lazkanok, Zizurkilgo alkateak eta Koldo Azkoitiak, Etorlurreko ordezkariak, sinatu zuten etxebizitza hauen proiektuaren hitzarmena

ERREDAKZIOA

Maria Angeles Lazkanok, Zizurkilgo alkateak, eta Koldo Azkoitiak, Etorlurreko ordezkariak, Zizurkilen egongo dituzten 30 etxebizitza berrien inguruko hitzarmena sinatu zuten atzo. Ekitaldian, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako ahaladun nagusia izan zen eta bera izan zen Zizurkilgo Udalarren eta Etorlur Gipuzkoako Lurra SAREN arteko hitzarmena sinatzeko ekitaldian buru.

30 etxebizitza berri hauek egiteko lanak datorren uztailean hasiko dituzte eta 20 hilabete iraungo dutela aurreikusi dute. Beraz, 2009ko martxoan amaituko dituzte, eta orduan emango dituzte etxebizitzak.

Bi etxebizitza bloke egongo dituzte. Lehenengoa (Etorlurren foru sustapenekoa) horre-



Koldo Azkoitia eta Maria Angeles Lazkanok. HITZA

lakoak izango da: behe solairua gehi 4 goi solairu eta atikoa, guztira 30 etxebizitza. Bigarrenak (sustapen librekoak, hau

da, pribatuak) behe solairuaz gain 6 goi solairu izanen ditu, guztira, 12 etxebizitza. Eraikinen azpian eta plazaren azpiko

zati batean, lurrazpiko aparkaleku bat eraikiko da, 51 plaza-takoa: 42 etxebizitzaren nagusientzat, eta 9, inguruko auzoentzat.

Etxebizitzak, gela batekoak, bikoak eta hirukoak izango dira. Zehazki, eraikinak gela bakarreko 6 etxebizitza izango ditu, 2 gelako 20 eta 3 gelako 4. Guztiek izango dute trastelekua eta garaiea. Eraikiko diren 6 etxebizitzak errentan emango dira.

70 m², 151.000 euro

Azalera erabilgarriaren metro koadroari 1.900 euroko prezioa ezarrita lortzen da etxebizitzaren salneurria. Hartara, 70 m²ko etxebizitza batek, garaiea eta trastelekuarekin, 151.000 euroko prezioa izango luke, BEZA kanpo. Etxebizitza

alokatuek, berriz, salmenta prezioaren %5eko errenta izango dute, eta aurrerago esleitu dute.

Etxebizitzaren erdiak, Zizurkilen erroldatuta dauden eskatzaileentzat gordeko dira, eta beste erdiak, Gipuzkoako gainerako herrietan erroldatukoentzat. Etxebizitzak zozketa bidez esleitu dute parte, hala nola, Zizurkil edo Gipuzkoan azken 3 urteetan erroldatuta egotea, diru sarrerak urtean 9.000 eta 45.000 euro bitartekoak izatea eta Gipuzkoan etxebizitzarik jabetzan ez edukitzea, gutxienez azken bi urteetan.

Hitzarmen honen arabera, Zizurkilgo Udalarri 304 m²ko lokal bat utziko zaio doan, Joxe Arregi plaza osoki hiritartuko da berriro, Gonzalez de Txabarri esan duen bezala, «herriaren gunea den eremua indarberritzeko». Gainera eraikin berrien atzeko aldean bide berri bat eraikiko da eta Teodosio Zaharra etxea eraitsi egongo dute. Honek, Foru Aldundiaren arabera, proiektatuta dagoen bidegorria egiteko lanak erraztu egongo ditu, baita Asteasu ibaiaren berreskuratzeko egin behar direnak ere.

Etxebizitzak esleitzeko prozedura apirilaren erdialdera zabalduko da.

LEITZA ▶

Baketik-eko hitzaldia, astelehenean

Etzi, astelehenarekin, Baketik-eko Jonan Fernandezek hitzaldia eskainiko du Eliz Ganbarako aretoan. Bertan bake prozesuaren inguruko hainbat gai jorratuko ditu, hala nola, bake prozesua zer den, erronka pertsonala, eta azkenik zailtasunak eta itxaropena. Jonan Fernandezek hitzaldia 19:00etan hasiko da.

LEITZA ▶

Iera Agirre, lehenengoa Euskal Herrikoan

Iera Agirrek eta Saioa Aristorenak Euskal Herriko III. Pala Txapelketa irabazi egin dute, helduen mailan. Leitzako eta Etxarri-Aranatzko pilotariak martxoaren 10ean lehiatu ziren Oiartzunen, Auritzeko beste bi nesken aurka. Joan den larunbateko garaipen honekin, Iera Agirrek irabazten duen bigarren Euskal Herriko Txapelketa da.



Saioa Aristorena eta Iera Agirre. HITZA

TOLOSA ▶

'Robin eta Hood' antzelan ezaguna Leidor aretoan

Gaur, Gorakada antzerki taldeak *Robin eta Hood* antzelana eskainiko du 17:00etan. Lana ikusi ahal izango da Leidorren. Robin eta Hood familia osoari zuzenduriko ikuskizuna da. Bertan, aktore jokoa eta txotxongiloak erabiltzeko teknika ezberdinak tartekatzen dituzte. Sarrerak Leidorren edo Kutxa.net-en eskuratu ahal izango dira.

IBARRA ▶ GIZARTEA



Lanak hasi arte, elkartzten

«Gure eskaera aurrera doala esan digute baina lanak egiten hasten direla ikusi arte, ostegunero elkartzten jarraituko dugu». Apatta-Errekako bizilagunek, elkarretaratzea egin zuten euren auzoaren aurretik

igarotzen den Leabururako errepidearen erdian. Jokin Biddarratz, Tolosako alkateari deialdia luzatu zioten, «duela 750. urteko bide berdina» dutela esanez. Bizilagunek 2000. urtean hasi eta oraindik ere jarraitzen dute Zumardi Handitik Apatta-Erreka auzoko bidegurutzerainoko espaloia bat eskatuz. ASIER IMAZ

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Korrika egunean, martxoaren 24a, bazkaria antolatuta dute Sarasola sagardotegian. Izen-ematea, Itzulin 17a baino lehen.

Berrobi. Podologo zerbitzua izango da hilaren 26an 15:30ean. Ordua udaletxeko bulegoetan hartu behar da 21a baino lehen (943 683294).

Lizartza. Afizionatuen mailako XIX. Insalus Txirindularitza Saria izango da Lizartzan 15:30ean abiatuta, Otsabio Elkarteak antolatuta. Lehendakari Txapelkarako puntuagarria izango da.

Tolosa. Udak Kultur batzordeak antolatuta, Gorakada antzerki taldearen *Robin eta Hood* haurrentzako antzezlanak ikus ahal izango da Leidor aretoan 17:00etan.

Tolosa. Neu eta Urgabe taldeak Bonberenean izango dira 22:30ean.

Villabona. Kultur Korrikaren barruan, Gu Ta Gutarrak eta Karidadeko benta musika taldeen emanaldia Gurea zinemaren 22:00etan.

Zizurkil. Korrikaren bertso bazkaria izango da hilaren 24an Ainhoa Agirreazaldek eta Andoni Otamendirekin. Txartelak salgai Aurrera, Egarrri eta Goiko Zentro tabernetan 15 eurotan.

ZINEMA

Tolosa. Iejandro Gonzalez Iñarritu zuzendariaren *Babel* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur eta bihar 19:30ean eta 22:30ean, eta etzi 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Irurtzun. Mutloa, A. San Martin, 5. 112.

Tolosa. Ollarrea, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

IRRATIA

Txolarre irrátia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitza* hegana.

Goiko irrátia (107.0 FM)
 12:00. *kornerra.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Udaberriarekin batera, jaia!

BERASTEGI ▶ Atzo ekin zieten Gazte Festei, Urepele elkarteak antolatuta; gaur eta bihar ere izango dute zer gozatua herritar nahiz kanpotarrek

ERREDAKZIOA

Udaberri usainarekin heldu dira aurten Gazte Festak Berastegira. Izan ere, egun gutxi barru urtaro koloretan sartuko gara. Hori dela eta, ongietorri berezia egin nahi izan diote herrian, hainbat ekitaldi antolatuz.

Urepele elkarteak antolatuta, gaur 15:00etan mus txapelketa egingo dute; 18:30ean toka eta dardo txapelketak jokatuko dituzte, bai eta sagardo dastaketa egin ere. Gauen, berriz, Laiotz taldearen emanaldia entzun ahal izango dute herritar nahiz bisitariek.

Atzo ere izan zen zer gozatua herrian. Izan ere, arratsalde partean nor baino nora aritu ziren emakume eta gizonezkoak, futbito norgehiagokan. Gau partean, berriz, bertso afaria izan zen elkartean. Sustrai Kolina, Amets Arzallus eta Jesus Mari Irazu bertsoariaren esku-tik.



Emakume eta gizonezkoen futbitoko partidak eman zien hasiera atzo Berastegiko Gazte Festei. ASIER IMAZ

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

berria euskarazko zinemarekin



MARTXOAREN 24AN
 filma DVD formatuan

MARTXOAREN 31N
 filma DVD formatuan



+ 6,95€

Harpidedunentzat, %20 merkeago bi DVDak 11 euro

Eskaera egiteko, martxoaren 16tik 31 arte, **943 30 43 45** telefonora deitu edo **www.berria.info** izena eman.